

EIBARRERAZ



**Eibarreraz idazteko
oiñarrizko erizpidiak**

Sarrerria

Urtiak dira, eibarrera bizittu eta berreskuratu nahixan, jende talde batek lanian diharduala; bide horretatik publikaziño eta ikastaro batzuk egin dira. Beste alde batetik, hor dago ...eta kitto! astekarixaren ahalegiña, idazkeriaren arluan zenbait atalen dibulgaziñuan.

Baiña, hórrek biharrok garatu ahala, konturatu gara eibarrera idazterakuan joera desbardiñak dagozela, eta horrek kezka sortu dau, publikaziño barrixak be badatozelako eta gero eta jende gehixago dagoalako eibarrera erabiltzen.

Hori dala-ta biharrezkua ikusi zan, ahal zan neurrixan, eibarreraren idazkeran zeresana daken pertsona eta entidadietako ordezkarien artian bat etortzeko ahalegiña egin bihar zala.

Esandakua ipar moduan hartuta, Imanol Laspiur, Serafin Basauri, historiko bi; Juan Andres Argoitia, ...eta kitto!ko hizkuntz arduraduna eta Fernando Muniozguren, Udal Euskara Batzordeko ordezkari moduan, eibarreraren idaztarauak lantzeko oiñarrizko txostena egittiari ekin zetsen.

Txostena egin ondoren hainbat laguni, hogeta bost bati edo, bialdu jakuen aztertu eta batzar orokorrian aurkezteko, nahi aiña ekarpen egiteko eskatuz. Holaxen ba, honakuen ekarpenak jaso ziran: Koldo Zuazo, Roberto Larreategi, Enrike Izagirre, Udal Euskaltegia eta Antxon Narbaiza.

Lehelengo batzarrian, hamazortzi lagunak hartu genduan parte, hórren artian, Ermua, Elgeta eta Bergarako hiru lagun adittu eta interesatuk. Geruago, beste lagun batzuek be partehartzia eskatu zebe eta jardun izan dabe hamabosteroko batzarretan. Hona hamen gehixago edo gitxiago jardundakuak:

Jose Etxeberria (Querido), Antxon Narbaiza, Jesus Mari Gisasola (Trunboi), Pedro Laka, Roberto Larreategi, Juan Martin Elexpuru (Bergarakua), Juan Andres Argoitia, Begoña Azpiri, Enrike Izagirre, nerea Areta, Imanol Laspiur, Serafin Basauri, Oier Narbaiza, Fernando Aranbarri (Ermukua), Nerea Beitia, Oier Gorosabel, Itziar Garitagoitia, Alberto Telleria (Elgetakua), Asier Sarasua eta Fernando Muniozguren.

Idazkaritza-lana Fernando Muniozguren eta Asier Sarasuak egin dabe.

Talde-lana amaittu eta gero, Euskaltzaindiako Miren Azkarate andriak jorratu dau goitik behera gure biharra eta, zuzenketatxo batzuk egin eta gero, bere oneritzixa emon detsa txostenari.

Hona hamen, prozesu horren ostian hartutako erabakixak:

1 H

Batuan moduan: haundixa, mahaixa, hi, harrua... Baitta “h” horrek diptongua hausten badau be: **mehia, behia, behekoa...**

2 S/Z

Gaur egunian ahozko hizkuntzan S eta Zren arteko bereizketarik iñork gitxik egitten badau be, idazteko bihar dan moduan bereiziko dittugu: **sagua, zapua, zopia, zikiña, sasoia...**

3 TZ/TS

Goiko kasuan legez, ahozkuian ez da bereizketarik egitten, dana da TZ. Halanda be, idatzixan bereizi egingo dittugu: **baltza, mahatsa, etzi, etsipena...**

Oharra: Batuan ez moduan: Eibarreraz **bakoitza** k **bako-txa**, **gaitza** k **gatxa**, **haitza** k **hatxa...**

4 LL

i+l tokatzen danian, “**ill**” idatziko dogu: dabillenan, milla, hilletia, maillukia... Berba amaieran be “**ill**” idatziko dogu, baiña ez beti: hurrengo berbia kontsonantez hasten danian “**l**” idatziko dogu. Bokalez hasten bada, “**ill**”. Esate baterako: **badabill hori** / **badabil barriri** be, **sail horrek** / **sail barrixa**, **hill egin dok** / **hil dok...**

5 Ñ

i+n gertatzen danian, “**iñ**” idatziko dogu; kasu guztietan: **haiñ, oiñ, makiña, gaiñian, baiña, suiña...**

Edozelan be, bada salbuespen bat: **-iñ** horrekin amaitzen diran berben ondoko hitza kontsonantez hasten bada, berba amaieran **n** idatziko dogu: **egin dau, hain txikixa, baiña, egiñ arren, haiñ estua...**

Oharra: zana, ezpana... Lexikalizatuta dagoenez ez dira arlo honetako kasuak.

6 TT

i+t gertatzen danian, beti **itt** idatziko dogu (nahiz eta ahozko hizkuntza ixa gehixenetan itx, edo antzekua entzun): **dittugu, jittun, baitta, itto, aitta, aittitta, itturrixa, hakitt, badakitt...**

7 Bokal arteko "d" eta "r"

Hórrek kontsonantiok modu bittan erabiltzen dira:

- Lexikuan edo berbetan: **"d"**ari emongo detsagu lehentasuna: **moduan, besarkadia, edo...**
- Aditz joko edo kongugaziñuetan: **"r"**ak eukiko dau lehentasuna: **etorri hari, daukaraz, detsaraz, ditturaz...**

8 Bokal arteko "g"

Berba egitterakuan askotan ez dogu fonema hori erabiltzen. Baiña idazterakuan berbia dan moduan erabilliko dogu: **eon** k **egon**, **uazaba** k **ugazaba**, **nausi** k **nagusi**, **zeuan** k **zeguan...**

9 "EZ" partikulia erabiliz sortzen diran aldaketen gaiñian

KASUA	ESATEKO MODU JATORRA	ZELAN IDATZI BIHAR DAN
ez + b = ezb-	ezpaletor	ez baletor
ez + d = ezd-	eztator	ez dator
ez + j = etj-	etxakixat	ez jakixat
ez + l = el-	eleuke	ez leuke
ez + n = en-	enoia	ez noia
ez + z = ez-	ezan	ez zan

Oharra: konturatu bihar dogu, batuaren kasuan gertatzen bada be eibartarraz ez dogula **ez + g = ezg** egiten. Eibarren **ez + g = ez g: ez gara** esan eta idatzi.

10 BIHAR partikulia erabiliz sortzen diran kontrakziñuen gaiñeko argibidiak

KASUA	ESATEKO MODU JATORRA	ZELAN IDATZI BIHAR DAN
bihar + d-	Bihadogukbihaoukbiou	bihar dogu
	Bihadestak k biestak	bihar destak
	Bihada	bihar da
	bihadokkbihaokkbiok	bihar dok
bihar + j-	Bihajok/nkbihaok/n	bihar jok/n
bihar + ko + d-	Bihakoestazuekbihakostazue	biharko destazue

Aditz nagusixa Nez amaitzen danian sortzen diran zenbait kontrakzioaren tratamentua

KASUA	ESATEKO MODU JATORRA	ZELAN IDATZI BIHAR DAN
-n + d = Ø	esatetsa	esaten detsa
	emoetsut	emon detsut
-n + e	esaeban	esan eban
	emoeban	emon eban
-n + g = g	izategiñan	izaten giñan
-n + go + d	emongoeuatkemongeuat	emongo deuat
	eingou	egingo dogu
	eruangoestakkeruangostak	eruango destak
-n + j = Ø	esateako	esaten jako
	etortzeaku	etortzen jaku
-n + ko + d	etorrikok/n	etorriko dok/n
-n + z = z	ikustezan	ikusten zan

Aditz amaierako bestelako kasu batzuk

KASUA	ESATEKO MODU JATORRA	ZELAN IDATZI BIHAR DAN
-t + b = p-	eztakipa	ez dakit ba
-k + b = -p-	etorriopa	etorri dok ba

Aditzian bokal artian "d" fonemak joko berezixa emoten desku

Berba egitterakuan galdu egitten da. Baiña jarraixan "au", "eu", "ei" diptonguak badagoz, ez. Baiña idazteko oso osorik idatziko doguz.

Esate baterako:

- **ikusiok/n** k **ikusi dok/n**
- **ikusiozu** k **ikusi dozu**
- **ekarriesta** k **ekarri desta**

Baiña, esan eta idatzi, bardin, "d" fonema galdu barik:

- **ekarri deuat**
- **erosi dau**
- **segidu deixon**

14 Berba berezi batzuen idazkeria

- **Ere** k **be** idatziko dogu
- **Eta:**

ESATEKO MODU JATORRA	ZELAN IDATZI BIHAR DAN
aitta ta ama	...eta...
berreun da bat	...eta...
zazpi tta bost (pelotan)	...eta...
zortzi tta larenak	...eta...

15 -z gero = ezker

Batuan etorri **gero**, hartuz **gero**... idazten badira be eibarreraz etorri **ezker**, hartu **ezker**... idatziko dogu.

16 Erderaz "r" batekin hasi eta geureganatu dittugun berbak

Gatxa da kasu honetan araurik emotia modu desbardiñian idazten diralako: **ración** k **raziñua**, **reconocer** k **rekonozidu**, **reja** k **erreja**, **ratón** k **arratoi**, **regular** k **erregular**.

Halanda be esan leike ugarixaguak dirala erderazko "re", "ra", "erre", "arra" bihurtzen diren kasuak.

17 Deklinabidiaren inguruan jakin biharreko nagusixak

- **NOREN KASUA:**

Eibarren **Noren** kasua, batuakin konparauta, modu berezitan deklinatzen da, bittarteko **-re-** barik. Esate baterako, batuko "andriaren", Eibarren "andrian", "mendiaren" k "mendan"... erabiltzen dira. Beraz, Noren eta Non kasuak esaldixan kontestuak bereziko ditu.

Halan da be Noren eta Non kasuak ondo bereiztearren, bittarteko "re" hori idatzi egingo dogu: "kalian" k **kaliaren**, "etxian" k **etxiaren**, "autoan" k **autoaren**.

- **NORE(N)GANA:**

“-g-” hizkixaren aztarrenen bat gelditzen danez idaztia erabaki dogu. Halanda be, batuan egitten dan moduan, bittarteko **(re)(n)** ez dira derrigorrezkuak: **amagana/amarengana, zuegana/zuengana, lagunarengana/lagunagana...**

- **NORUNTZ/NORUTZ:**

Kasu honetan, galdetzailiak berak be **“n”**a galdua dakanez ez idaztia erabaki da: **etxerutz, mendirutz...**

- **ERAKUSLIAK ETA AZENTUA:**

Araua: singularra eta plurala desbardindu ahal izateko erakuslietan, pluralian, azentua sartia erabaki da era honetan: **“haren (pertsona bat) laguna”, “háren (pertsona batzuk) laguna”...**

Oharra: Erakusle pluralak azentuakin idatziko doguz, singularretik bereiztu ahal izateko, nahiz eta datibuaren kasuan premiñarik egon ez, singularra desbardiña dalako **(sing.: honi, horri, hari/Plurala: hóneri, hórreri, háneri)...**

- **NORENTZAT/NORENDAKO:**

Nahiz eta, seguru asko, jatorriz bardiñak ez izan, **(-tzat)** eta **(-dako)** deklinaziñuen artian bereizketarik ez egittia erabaki da. Forma bi badagoz, zergaittik bat kendu?. Beraz, **umiantzat = umiandako, herrixantzat = herriarendako...**

- **-KIN ETA -GAZ:**

Aurreko kasuan moduan, seguru asko jatorriz bardiñak izan ez arren, **(-kin)** eta **(-gaz)** deklinaziñuen artian bereizketarik ez egittia erabaki da. Beraz, **katuakin = katuagaz, lagunekin = lagunegaz...**

- **ERAKUSLIAK NUN:**

Erakuslia hiru modutara erabiltzen da Eibarren. Aberastasun hori murriztu biharrik ez dagueenez, arauak emoteko orduan hórrek hiru formok dagozela azaldu biharko da eta idazliaren esku laga erabilleria.

**Horko etxeko / Etxe horretako / Hor etxeko
Hortik etxetik / Etxe horretatik / Hor etxetik
Horra etxera / Etxe horretara / Hor etxera**

- **ERAKUSLIAREN ERREPIKAPENA:**

Eibarren oso normala da erakuslia birritan esatia (**Hau txakur hau**). Oso forma jatorra da eta gero eta gitxiago erabiltzen danez, babestu eta zabaldu biharrekua. Baiña idazterakuan bigarren erakuslia berbiari lotuta eta **“h”** barik idatziko dogu. Era honetan: **hau txakurrau, hori etxiori, hárek mutillak, hórrek mutillok...**

Berba amaiera batzuen idazteko moduaren gaiñian

• HIATUAK

- **a + a = ia:** **alaba** ⇨ **alabia**, **gauza** ⇨ **gauzia**, **andra** ⇨ **andria...**

Baiña esan eta idatzi bardiñ: **ama**, **amama**, **aitta**, **aittitta...**

- **e + a = ia:** **seme** ⇨ **semia**, **urre** ⇨ **urria...**
- **e + e = ie:** **senide** ⇨ **senidien**, **alkate** ⇨ **alkatien...**
- **e + o = io:** **emakumeon** ⇨ **emakumion**, **abadeok** ⇨ **abadiok...**
- **i + a = ixa:** **mendi** ⇨ **mendixa**, **ogi** ⇨ **ogixa...**
- **i + e = ix:** **animalietan** ⇨ **animalixetan**, **belarrietan** ⇨ **belarrixetan...**
- **i + o = ix:** **behi** ⇨ **behixok**, **herri** ⇨ **herrixok...**
- **o + a = ua:** **guraso** ⇨ **gurasua**, **joko** ⇨ **jokua...**
- **o + o = uo:** **neskatook** ⇨ **neskatuok**, **harrook** ⇨ **harruok...**

• ERDERATIK HARTUTAKO BERBAK

- **eo + a:** **video** ⇨ **bideua**, **mausoleo** ⇨ **mausoleua...**
- **ia (diptongoa) + a = ia:** **farmacia** ⇨ **farmazia**, **industria** ⇨ **industria...**
- **ia (hiatua) + a = ixa:** **ortografia** ⇨ **ortografixia**, **armeria** ⇨ **armerixia...**
- **ión = -iño:** **estación** ⇨ **estaziño**, **ración** ⇨ **raziño...**
- **ón = oi:** **melón** ⇨ **melo**, **camión** ⇨ **kamioi...**

• ERDERATIK HARTUTAKO ADITZAK

- **ar = -au:** **cantar** ⇨ **kantau**, **escalar** ⇨ **eskalau...**
- **er = -idu:** **atender** ⇨ **atendidu**, **mover** ⇨ **mobidu/mogidu...**
- **ir = -idu:** **fundir** ⇨ **fundidu**, **sentir** ⇨ **sentidu**, **seguir** ⇨ **segidu...**

• **ERDERATIK HARTUTAKO LANBIDIAK**

- **ero + a = -erua: bombero** ⇨ **bonberua, armero** ⇨ **armerua...**
- **or = -ore: pintor** ⇨ **pintore, escultor** ⇨ **eskultore...**
- **or + a = -ria: pintor** ⇨ **pinttoria, escultor eskultoria...**

- | | | |
|---------------|------------------------|------------------------|
| - rio: | botikarixo/xua, | secretarixo/xua |
| - ria: | botikarixa/xia, | sekretarixa/xia |
| - co: | mediko/kua, | optiko/kua |
| - ca: | medika/kia, | optika/kia |

Ohar Orokorra

Erreferentzia nagusixak emote aldera, zera esan biharra dago: hamen emoten diran arauetatik aparte be egon leikezela gauza aittagarri gehixago. Baiña gure asmoa, kasu nabarmenenak argitzia izan da. Dana dala, bateronbati dudarik sortzen bajako berbaren bat idazterakuan, hónek liburuotara jotia dauka: Toribio Etxebarriaren *“Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar”* (beti be “h”rik ez dabela aurkittuko kontuan izanda), eta aditzaren kasuan *“Eibarreraren aditza”*. Deklinabiderako gerora argitaratzia espero dogun liburua izango da erreferentzia.

Eibarko Udalaren Batzarrak 1997ko urriaren 31n
hartutako erabakixak holan diño:

“EIBARRERAZ IDAZTEKO OIÑARRIZKO ERIZPIDIAK”

lanaren emoitzak onargarriak dirala eta
erreferentzia interesgarria izatiaz aparte,
aurrerantzian, eibarreraz idazteko kontutan euki
biharreko arauak. Hori dala eta Udalak bere egitten ditu.

***Eskerrik asko, modu batian edo bestian,
oiñarrizko idaztarauak lantzen jardun dozen
guztiori, Eibarko Udalaren izenian***

Jabier Zorrakin
(Euskara Batzordeburua)

**«Eibarren euskeraz erabiltzen
dittugu autu guztiak,
bai zerukuak bai lurrekuak»**

(Toribio Etxebarria)

Argitaratzailea



Eibarko Udala
Euskara Batzordea

Laguntzailea

